

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

| | |
|--|---|
| 1. Erakundearen izena: | ELAY,S.L. |
| 2. Sektorea: | INDUSTRIA |
| 3. Langile kopurua: | 224 |
| 4. Webgunea: | www.elay.eus |
| 5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...): | <p>Piezen produkzioa:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ebakitako piezak, ebaketa zehatzeko prentsak erabiliz (zehaztasuneko trokelatua) eta ondorengo operazioak piezak bukatu arte, lixatua, bizar kenketa, tolostatuak, alakatuak, artezte eta muntai operazioak- Iniektatutako piezak ebaketa zehatzeko piezen gainean- Beroa desagertzeko piezak argi sistematarako, forming teknologia erabiliz <p>Automobil, karga gutxirako automobil eta automobil industrialetarako.</p> <p>Bezero globalak ditugu, Amerika, Txina eta Europan.</p> |

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

| | |
|-------------------------------------|-----------------|
| Solaskidearen izen-abizenak: | Iratxe Muxika |
| Helbide elektronikoa: | iratxe@elay.eus |
| Telefonoa: | 637292820 |

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

| | |
|---|--|
| 1. Praktika onaren titulua: | KONTRATAZIOETAN EUSKARA BALDINTZA IZATEA |
| 2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? | <p>Elayn kontratatzen diren pertsona guztiek euskara jakin behar dute. Ez da aukera bat, derrigorrezkoa da.</p> <p>Elayren politika betetzeko bidean, euskaraz lan egiteko derrigorra da bertako langile guztiek euskaraz jakitea. Elayko langileek euskara ikasi edo/eta alfabetatzeko egindako esfortzua handia izan zen eta lan hori galdu ez dadin, kontratazio guztientzako euskara jakitea derrigorrezkoa izan behar da.</p> <p>2006etik kontratatutako langile guztiek euskaraz badakite, baina bere lanpostuak eskatzen duena baino alfabetatze maila baxuagoa duena euskara-eskoletara joan da. 2008an hasita 72 langile kontratatu dira, zeinetatik 2ek eskolak behar izan dituen. Hau da, %3ak bakarrik behar izan ditu euskara-eskolak.</p> <p>Euskara dakiten pertsonak kontratatuta Elayko lanean integrazioa erraztu da.</p> <p>Azkeneko urtetan etorri berriei jarraipen zorrotzagoa egiten zaie, eta laguntza handiagoa eskaini euskaragatik sortutako zalantzak argitzeko eta integrazioan laguntzeko.</p> |

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)



KALITATE KOORDINATZAILEA.-

- Profil akademikoa:
 - Unibertsitate goi titulaturia: Ingenieritza Teknikoa edo Goi ingeniaritza.
 - Espezialitatea: Industriala edo/eta Antolakuntza .
- beste ezagutza batzuk:
 - ISO/TS 16949, VDA 6.3 eta IATF Menperatzea.
 - Lean-Six Sigma ezagutza.
 - Kudeaketan sistema integratuan lanean aritua.
- Hizkuntzak:
 - Euskara: Menperatzea. (C1 edo EGA). Ez badu menperatzen epe zehatz batean egiteko konpromisoa hartu beharko du.
 - Ingelera: B2.
 - Beste hizkuntza batzuk baloratuko dira (Alemana, Txinera, ...)
- Informatika:
 - ☺ Microsoft office menperatu.
 - ☺ Kalitatean ERP desberdinekin lan eginda egotea baloratuko da.
- Beste ezaugarri batzuk:
 - Negozio eta estrategiaren ikuspegia.
 - Erabakitzailea.
 - Bezeroa (barne/kanpo) orientazioa.
 - Antolakuntza, kudeaketa gaitasuna.
 - Mentalki malgua.
 - Berrikuntzagatik interesa izatea.
 - Tinkotasuna, sinestarazteko erraztasuna.
 - Sintesi gaitasuna.
 - Talde lanean aritzeko gaitasuna, kudeaketa parte-hartzailea.
 - Negoziazio gaitasuna.
 - Komunikazio gaitasuna.
 - Lidergoa.
 - Bidaiatzeko prestutasuna.
 - Gutxienez 3 urteko esperientzia kalitatean. Automobilgintza alorrean.

PE-6.01.00 Pertsonen kudeaketa prozeduran azaltzen da:

■ Hizkuntzaren arloari dagokionez, gai hauek landu behar dira KONTRATAZIOAn:

- Pertsona Kudeaketa Sailak kontratatzen dituen langile euskaldunen kontratuak, LANBIDEko agiriak eta Gizarte Segurantzako agiriak euskaraz beteko ditu (euskaraz daudenak).
- Euskaraz ez dakien pertsona bat kontratatzen bada, lehenbailehen Euskara arduradunari abisatu plan bat egiteko.
- Euskaldunak ez diren langile berriekiko prozedura euskara ikasten duten denbora tartean hau izango da: euskaraz dauden idatzizko prozedurak ez dira itzuliko, pertsonalki azalduko dira gazteleraz.
- Euskaldunak ez diren langile berrien **behin-betiko** kontratuan baldintza hau jasotzen da:
**ELAY, S.L. ENPRESA EUSKARAZ KUDEATZEN DA ETA LANA EUSKARAZ KUDEATZEAKO KONPROMISOA HARTZEN DU.*
- **Behin- behineko** kontratuetan, hizkuntzaren gaia berdin-berdin lantzen da eta ahozko konpromisua lortzen da, baina ez da kontratuan batzen. Hartara denbora tarte horretan Elayko hizkuntza politikaren jarraibideak bertatik bertara ezagutuko ditu.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA